

Prostituzioa, beste lan bat?

Prostituzioa lanbidetzat har dezakegu? Benetan beste lan bat bezalakoa da? Prostituzioa lanbide zaharrenetarikoa izanda ere, gaur egun gure gizartean existitzen jarraitzen du. Hala ere, horrela izaten jarraitu behar al du? Gure erantzuna baiezkoa bada, gure ama, alaba, lagun edo edozein emakume horretan lan egitea babestuko genuke eta ados egon beharko ginatke. Hori nahi izanez gero, "lanbide" hau unibertsitatean ikasteko aukera eskaintzearen alde egon beharko ginatke ere.

Errealitatean, erantzuna "ez" da. Ez dugu horrelako lanbiderik nahi gure lagun edo sendeentzat. Orduan, zergatik baimentzen dugu beste emakume batzuk horretan lan egitea? Orokorrean, emakume hauek ez dira prostituzioan sartzen nahi dutelako, baizik eta txiroak direlako. Prostituzioak agerian uzten ditu gizarteko ezberdintasun sozialak. Zuzeneko lotura du emakumeen egoera ekonomikoarekin (emakume dirudunak ez baitute haien gorputza saltzeko beharrik), baita gizonekiko duten mendekotasunarekin. Krisiak eta langabeziak direla eta, lan honetan parte hartzen duten emakumeen kopuruak gora egiten du, ez baitute beste aukerarik aurkitzen dirua irabazteko.

Sexu industriak garrantzi handia dauka merkatu mundialean, baita drogak eta armenak. Espainiako estatuan, prostituzioa ez da ez debekatu ez onartu; bakarrik ezartzen da zigorra delitu bat dagoenean, hau da, esplotazioa edota proxenetismoa agertzen direnean. Espainia Europa herrialdeetako prostituzio kontsumitzaile nagusienetako da, honek ondorio latzak dakartza; urtero 40.000 eta 50.000 emakume artean indarkeria sufritzea, batez ere emakume kanpotarrak.

Espainiako estatuan prostituzioan aritzen diren emakumeen %92a dira. Gasteizen, emakume asko bizitza hobe baten bila datoz, baina lanik ez dutenez aurkitzen, prostituzioan lan egitera behartuta ikusten dute haien burua. Gehienetan, emakume hauek Europara era ilegalean etortzen dira, horregatik hemen geratzeko baimenik ez dute. Orokorrean, Nigeriako, Asiako edota Hego Amerikako emakumeak dira, hala nola, herrialde txiroetatik etorritako emakumeak.

Arazo honen aurrean, erantzun ezberdinak daude. Batzuk, erregulazioaren alde egiten dute. Prostituzioaren barnean ematen diren emakumeenganako tratu txarretaz, bortxaketaz, esplotazioaren berri dira, eta horregatik erregulatu nahi dute. Haien ustez, erregulatzarakoan eta legala izatean, kontrol gehiago ezarri daiteke sexu-industrian, baita emakumeen eskubideak ziurtatu ere, indarkeria murriztuz. Baina, zer geratuko da ilegalki gure herrialdean dauden emakumeekin? Izango dute benetako babesik polizia eta Estatuaren aldetik?

Ez, ez du benetako babesik ziurtatzen. Alde batetik, emakume atzerritarrek beldur diote poliziara joateari eta salaketa jartzeari, ez baitute dokumentaziorik eta haien jatorriko herrialdera bidaltzeko arriskua baitute. Beste alde batetik, mafiek emakume asko engainatzen dituzte, eta behartzen dituzte lan egitera. Beldurraren paperak garrantzi handia du, salaketa oztopatzen duelako.

Beste erantzun bat prostituzioaren arazoari, honekin bukatzea da. Hau defendatzen dutenen proposamena, prostituzioaren eskaerarekin amaitzea eta honen iraupena ahalbidetzen duten edozein egoerarekin bukatzea ere. Izan ere, eskatzaile edo kontsumitzailea zigortuz gero, eskaerak behera egingo zukeen, prostituzioaren desagerpena erraztuz. Gainera, proxeneta heitzeko helburua du, izunekin zigortuz eta hura kriminalizatuz. Aldi berean, emakumeak

Estatuaren laguntza jasotzen du, ikasketak burutzeko eta lan bat aurkitzeko, lan alternatibo eta egokiagoa. Azkeneko helburua, gizartean ezarritako pentsamoldea aldatzea da. Nola? emakumezkoen salerosketa pentsaezina bihurtuz.

Suedian abolizionismoaren alde egin zuten prostituzioaren arazoarekin amaitzeko. Herrialde honetan, prostituzioa ez da lanbidetzat hartzen, guztiz kontrakoa; kontsumoa zigortzen da, beti bezeroa zigortuz eta emakumea babestuz. Lehenengo bi urteetan ez zen aldaketarik nabaritu, baina denborarekin, prostituzioaren kontsumoak behera egin zuen, eta honekin genero indarkeria eta emakumeen esplotazioa sexu helburuekin.

Erregulazioaren alde jo zuten herrialdeetan sexu industriak gora egin du, baita emakume atzerritar eta haurren salerosketa ere. Honen adibide dira Alemania edo Holandaren kasuak, prostituzioa lanbidetzat onartzen duten herrialdeak. Prostituzioa legalizatzean eskaera handitu egiten da, baita industria honen barnean ematen diren tratu txarrak ere. Gainera, emakume gehiagok erabakiko dute haien gorputza saltzea txirotasunetik ateratzeko.

Gure gizartea errespetuan eta berdintasuna oinarri izatea nahi badugu, horrelako arazoei erantzuna eman behar diegu. Gizon eta emakumeen arteko harremanak ezin dira asimetrikoak izan. Gizonek emakumearen gorputza diruarekin erosterakoan, emakume horren gaineko menpekotasuna islatzen dute, baita diruaren boterea ere. Ezin dugu onartu ezberdintasuna era hain argian erakusten duen praktika hau gure gizartean jarraitzea. Prostituzioarekin amaitu behar dugu, baita honen eskaerarekin eta emakumeak salerosi daitezkelaren pentsamoldearekin ere.

Kontuan hartu behar dugu, prostituzioa debekatzekoan, emakume asko lan gabe gera litekeela, haien egoera ekonomikoa okertuz. Horregatik, prozesu honen hasieran batez ere, estatuaren esku-hartzea beharrezkoa da; emakume hauen integrazioa eta babesu ziurtatzeko. Estatuak emakume hauei beste motatako lanetan sarbidea erraztuz gero, saihestuko litzateke haien gorputza saltzeko beharra dirua irabazteko.

Leire Rodríguez Zapatero